

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Behin betiko onartzea hiri hondakin solidoak bildu eta deuseztatzeko zerbitzuaren zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa

Jendaurreko epea amaitu delarik Udaltzako 2019ko urriaren 29ko ohiko bilkuran onartu eta ALHAOn (127 zk) 2019ko azaroaren 4an argitaratu zen erabakiari dagokionez, zeinaren bidez onartu baitzen zerbitzuen eta administrazio jardueren tasen zerga ordenantza aldatzea, hiri hondakin solidoak bildu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren eranskinean, eta epe horretan ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, bat etorritz apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan eta uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.3 artikuluan ezarritakoarekin.

Foru arau horrek 16.4 artikuluan jasotakoa betez, zerga ordenantza horretan aldatutako testua argitaratzen da, zeinak ondorioak izango baititu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera; honela dio, hitzez hitz:

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantza: hiri hondakin solidoak bildu eta deuseztatzeko zerbitzua (urteko kuota, 2020ko ekitaldia).

ERABILERA	TARIFAK
Etxebizitzak	76,70 euro
Profesionalen lokalak	76,70 euro
Saltegiak	153,52 euro
Ostalaritza - kirolak - beste batzuk	
Txokoak	214,72 euro
Taberna - kafetegiak	214,72 euro
Jatetxeak, sardexka 1	368,18 euro
Jatetxeak, 2 sardexka	459,94 euro
Ostatua - landa turismoa	188,56 euro
Hotela	188,56 euro
Adinekoen egoitza, 20 plaza arte	188,56 euro
Adinekoen egoitza, 21 - 40 plaza	316,16 euro
Adinekoen egoitza, 40 plaza baino gehiago	443,68 euro
Kirol zona	635,18 euro
Gizarte etxeak	136,38 euro
Hipika	152,98 euro
Industria	
500 m ² arte	169,62 euro
De 501 a 1.000 m ²	620,68 euro
De 1.001 a 3.000 m ²	951,22 euro
De 3.001 a 10.000 m ²	1.426,90 euro
Más de 10.000 m ²	1.902,58 euro

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2019ko abenduaren 18a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA